

ETXEBIZITZA. 2002-2005erako Etxebizitza Plana onartu zuen atzo Gobernu Batzordeak

Babestutako etxeak libreak baino gehiago izatea espero du Jaurlaritzak

Zortzi urteko epean lortu nahi dute, eta etxe hutsen alokairua sustatuko dute, besteak beste

Erredakzioa | GASTEIZ

Zortzi urteren buruan, 2010erako, babestutako etxebizitza kopuruak etxebizitza libreena gainditzea espero du Eusko Jaurlaritzak; gaur egun, babestutako etxeak guztien %30 baino ez dira. Javier Madrazo Etxebizitza sailburuak egin zuen aurreikuspen hori, atzo Gobernu Batzordeak 2002-2005 eperako Etxebizitza Plana onartu ostean. Helburu hori lortzeko datozen hiru urteetan emango dituzten pausoen berri eman zuen sailburuak atzo.

Babestutako etxeen kopurua %30etik %40ra igotzea izango da 2005era arteko erronka. Hala, 21.200 etxebizitza eskainiko ditu; horietako 8.900 salteko izango dira, eta 7.300 alokairuan jartzeko. Falta diren beste 5.000 etxebizitzak eskaintzeko, egun hutsik dauden etxeak baliatu nahi ditu Jaurlaritzak.

Madrazok atzo esan zuenez, 27.000 etxebizitza huts daude Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, eta horien jabeak animatu nahi dituzte etxeen kudeaketa Jaurlaritzaren esku uzteko. Hiru berme eskainiko dizkio Etxebizitza Sailak etxebizitzaren jabeari: alokairuko dirua hilerro eta garaiz jasotzea; etxebizitza alokatzerakoan zegoen egoera



Hutsik dauden etxebizitzak errentan jartzea nahi du Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak.

berean berreskuratzea, inongo kalterik gabe; eta, azkenik, etxebizitza berritzeko laguntzak jasotzea. Neurri horiekin batera, foru aldundiekin akordioa lotu nahi dute, alokairuengatik ezartzen diren zergak gutxitzeko. Neurri horiekin 5.000 etxebizitza mugiaraztea espero du Madrazok.

Erabilitako etxebizitza librearen arloan ere laguntzak handituko dituzte datozen urteei

begira. Helburua 4.200 erosleri laguntzak ematea da, eta horrekin laguntzen kopurua %2 igotzea.

Babestutako etxeak ez dira libreak izatera pasatuko

Planak dakartzan berrikuntzen artean, berriz, babestutako etxebizitzaren kalifikazioa aipatu zuen Madrazok. Babestutako etxebizitza beti izango da babestutakoa, eta, urteak pasa-

tu arren, ez da sekula saldu ahaliko etxebizitza libre gisa. Hala ere, neurri hori 2003tik aurrerako etxebizitzetan aplikatuko da, ez aurretik erosita koetan. Babestutako etxeen jabeek Jaurlaritzak zehazten duen salneurria ezarri beharko dute. «Etxebizitzak babestutako etxeen poltsa barruan mugitzea da helburua, eta erosleek irabazirik ez bilatzea», esan zuen Madrazok.

TELEFONIA MUGIKORRA. Orain arte, bizilagunen %60k baimena ematea nahikoa izaten zen

Telefonia antena bat jartzeko bizilagun guztien oniritzia behar dela dio Bizkaiko Epaitegiak

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Telefonia mugikorrek konpainiek euren interesen kontrako beste epai bat jaso dute Bizkaian, Lurralde Epaitegiak esan duelako telefonia antenak ipintzeko bizilagun guztien oniritzia behar dela. Orain arte, inguruko bizilagunen hiru bostenek (%60) antena jartzeko baimena eman zuten gero, telefonia konpainiek ez zuten trabarik izaten. Bizilagunen defentsa egiten aritu den Alberto Arrate abokatuak adierazi zuenez, epaia «oso garrantzitsua» da; «besteak beste, Euskal Herrian ez delako inoiz horrelakorik

izan eta, gainera, aurrekaria ezartzen duelako».

Erandioko (Bizkaia) Obieta kaleko antenaren harira eman berri du telefonia konpainien kontrako epaia Bizkaiko Lurralde Epaitegiak. Airtel konpainiak antena zeukan kale horretan, eta Juan Carlos Castro bizilagunak auzitara jo zuen. Besteak beste, antenen emisioen eraginez alabak hiperaktibitatearen gaixotasuna (TDAH) zeukala agertu zuen.

2001eko ekainean, Bilboko Epaitegiak arrazoia eman zion Castrori, eta antena kentzeko agindu zuen. Obieta kaleko antena «osasunarentzat kaltega-

ria» zela esan zuen Bilboko Epaitegiak. Gainera, Castro sendia bizi zen etxebizitzan «gehiegizko erradiazioa» zegoela gaineratu zuen.

Erandioko antena

Airtelek errekurtsioa aurkeztu zuen Bilboko Epaitegiaren epaiaren kontra; Arrate abokatuak azaldu zuenez, «euren betiko argudioa» erabiliz. Euskal Herrian arazoren bat zeukate-nean, beti esaten zuten nahikoa zela bizilagunen %60k baimena ematea. Erandioko antenaren kasuan, hamar bizilagun antena ipintzearen alde agertu ziren, eta bi baino ez kontra. Hala ere,

Bizkaiko Lurralde Epaitegiak Castroren alde egin du berriro, eta balio gabe utzi du Airtelek eta bizilagunek lotutako hitzarmen-kontratua. «Baina orain ez du osasunaren argudioa erabili; antena bat jartzeko bizilagun guztien oniritzia behar dela agertu du», gogoratu zuen Arratek.

Izan ere, epai berriak dio telefonia mugikorrek antenak ipintzeko derrigorrezkoa dela bizilagun guztien oniritzia, eta, Arratek azpimarratu zuenez, baliorik gabe uzten du orain arte erabiltzen zen %60ren botoen argudioa. Epaia argudiatzeko, Epaitegiak agertu du antena jartzeak eragina daukala etxearen konfigurazioan eta, Jabetza Legari helduta, beharrezkoa dela bizilagun guztien oniritzia.

INGURUMENA

Nafarroako Gobernuak txostena zabaldu du Ezkabako sutea dela eta

Erredakzioa | IRUÑA

Nafarroako Ingurumen Departamentuak espediente zabaldu du Ezkabako gertatutako azken sutea dela eta, atzo Gobernuak jakinarazi zuenez. Txostena informazioa bilatzeko onartu du Gobernuak, baina erantzukizunak izan direla ondorioztatuko balute, orduan zigorraz ezar litezake Departamentuak.

Ezkaba mendia suak hartu zuen urriaren 29an, Aitzoaingo kuarteleko soldaduek egindako ariketetan. Granada batek tiro eremua gainditu zuen, eta 4,5 hektarea artadi eta sasi kiskali zituen.

Hori ez da Ezkaba mendian militarrek eragin duen lehen istripu ekologikoa: 2000. urteko abuztuaren 24an, sute handi batek 102 hektarea suntsitu zituen. Orduan ere militarren ariketen ondorioz piztu zen sutea.

Nafarroako Gobernuak 126.000 euroko zigorra eskatua du orduko suteagatik, baina Nafarroako Auzitegiak oraindik ez du erabakirik hartu helegiteen gainean. Epaile batek salaketa artxibatzea erabaki zuen, sutea nork eragin zuen frogatu ezin zitekeelakoan.

Joan den asteko kalteak ordukoak baino askoz txikiagoak izan dira, haizerik ez zebilelako, batez ere.

Ingurua berez leheneratuko dela diote

Ingurumen Departamentuak hasitako ikerketan, ondorioztatu dute sutea kuartel inguruan hasi zela, lehenago militarrek onartua zuten bezala, eta gehienbat arteak eta haritzak erre zituela. Teknikariek adierazi dute ingurua berez leheneratu daitekeela, suteak ez baititu hondatu kimuak.

Javier Markotegik, Departamentuko buruak, nolahi ere, azalpenak eman beharko ditu Parlamentuan, Miguel Sanz presidentearekin batera. Markotegik, izan ere, oposizioaren kritikak eragin zituen, sutea artearendako «onuragarria» zela esan zuenean.